



Jakinarazpena / Comunicación

Kirolari buruzko Hausnarketa

Reflexiones sobre el Deporte



EUZKADI BURU BATZARRAK

AURKEZTUTAKO

JAKINARAZPENA

"KIBA: KIROL BATZORDEA"

KIBA: KIROL BATZORDEA
Kirolari buruzko hausnarketa EAJ/PNVren baitan

1.- AURKEZPENA

Gizarte aurreratuenen ezaugarrietako bat da kirolari ematen dioten tratamendu globala, hau da, herritargoaren bizitza kalitatea hobetzeraz bideratuta dagoen tresna transbertsaltzat jotzen dutela, osasun, enplegu, berrikuntza eta gizarte kohesiorako ekar ditzakeen onura ezberdinei erreparatuta.

2013 urte hasieran, EAJ/PNVk kirolaren inguruan aldeztu beharko lukeen jarrera ezartzeko erabili izan diren agiriak aztertu ondoren, Euzkadi Buru Batzarraren baitan lehen urratsak eman ziren planteamendu horiek eguneratzeko, norabidea finkatzeko eta herri kargudunei beren eginkizunetan laguntzeko ildo estrategiko batzuk ezartzen joateko.

2.- PARTE HARTZAILEAK

KIROLARI BURUZKO HAUSNARKETAK izenburuko agiri hau kirolaren esparruan lan egiten duten alderdikidek hiru urtetan egin izan duten lanaren fruitu eta ondorioa da. Agiri honetan jaso dituzte beren ezagutza, beren eskarmentua eta herri ikuskera, EAJ/PNVri bere historiarekin eta nortasunarekin bat datozen ildo estrategiko sendoak emateko eta gizarteak Alderdi honi kirolaren esparruan planteatzen dizkion erronkei zuzentasunez erantzuteko.

Lan honetan Unibertsitateko irakasleak, Lanbide Heziketakoak eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleak, kirol erakunde desberdinetako kudeatzaileak, besteak beste, fundazioak, Udaletako Kirol Institutuak, kirol klubak, kirol zinegotziak, Aldundietako eta Eusko Jaurlaritzako kirol zuzendariak, klub eta federazioetako zuzendariak, kirol osagileak, entrenatzaileak, euskal federazioetako presidentek eta legebiltzarkideak eta barne kargudunak aritu dira, kirola presente dagoen esparruen aberastasunaren eta aniztasunaren erakusle gisa: politikoa, ekonomikoa, juridikoa, hezkuntza, osasuna eta kirola.

3.- KIROL BATZORDEAK

Aldi berean, EAJ/PNVren barruan gauzak nola egiten diren erakusteko balio izan dute, esparru ezberdinetatik etorrira, bakoitza bere interes pertsonalekin eta helburu profesionalekin, lantaldean lan egiten jakin izan dutelako, ezagutzak eta esperientziak planteatzeko eta alderatzeko etengabeko prozesu batean, eta alderdi sozialetik, akademikotik eta zientifikotik ahalik eta agiririk sendoena egiteko eta, aldi berean, funtzionala eta ulertzen erraza, kirol mundutik ez datozen pertsonak erabiltzeko modukoa.

Horretarako, hiru batzorde mota antolatu ziren eta, bakarra izan zitekeen, funtzio eta erantzukizun ezberdinak izango ez balituzte, eta denetan errespetatu den oinarritzko printzipioa izan da ekarpen guztiak gainerako kideekin aztertu eta kontrastatu behar zela, kide guztien artean ahalik eta adostasun mailarik handiena lortu arte.

1.- Kirol Batzorde Iraunkorra:

Agiria egiteko prozesua dinamizatzeaz arduratu den taldea. Hausnarketa lana garatzeko oinarriak jarri ditu txosten honetan lan egiteko prest egongo ziren alderdikideak eta alderdizaleak aurkeztu dituzte, azken agiria adostu dute eta Alderdi barruan aurkeztu.

2.- Gaikako Kirol Batzordeak :


Aztertzea erabaki diren gairen batean lan egiten duten edo interes pertsonala duten pertsonak osatutako taldeak. Jarduera ildo edo gai hauek dira: Jarduera fisikoa, Eskola kirola, lehiaketa kirola, Goi Mailako Kirola, Kirol Profesionala eta Bertoko Kirola. Gai horien inguruko ekarpen eta hausnarketak egin dituzte Kirol Batzorde Iraunkorrek ezarritako eskemari jarraituz .

3.- Kirol Batzorde Orokorra:

Batzorde Iraunkorra eta Gaikako Batzordeak osatzen duten pertsona guztiek osatua. Bere egiteko nagusia izan da Gaikako Batzorde ezberdinetan burututako lanak aztertzea, baloratzea eta adostea.

4.- METODOLOGÍA

Hurrengo grafiko honetan aurkezten da prozesuan jarraitu den lan metodologia. Eskeman ikusten da Kirol Batzorde Iraunkorrak Gaikako Kirol Batzordeek garatu beharreko oinarriak ezarri dituela. Hauek beren hausnarketak eta ekarpenak Iraunkorrari planteatu dizkiote, lehen alderatze prozesua egiteko eta aztertutako guztiaren lehen bertsioa egiteko. Azken honek behin betiko testua egin du Alderdiari aurkeztu ahal izateko.



5.- ORIENTABIDEAK ETA ANALISI ETA HAUSNARKETA ESPARRUAK

Kirol Batzorde Iraunkorraren lehen atazetako bat izan zen lan marko adostua ezartzea, kirolaren beraren ikuspuntu ezberdinak bateratzea, hau da, kalekoa, akademi-koa, instituzionala eta lege irizpidea, landuko diren honako kirol orientabide nagusiak zehazteko :

- 1.- **Jarduera fisikoa:** *“jarduera fisiko eta kirol jarduera askea edo antolatu gabea, lehiaketa zirkuiturik gabea edo lehiaketa puntualarekin, osasunera, gozamenara eta ongizate integralera bideratuta”.*
- 2.- **Eskola Kirola:** *“kirol hezitzailea, hau da, inplikaturako eragile guztien artean inguru egokia sortzea eskatzen duena gizarteratzea eta kirol ohitura osasungarriak bereganatzea errazteko, jarduera-hausnarketa prozeduren bidez”.*
- 3.- **Lehiaketa kirola :** *“emaitza onak lortzera bideratuta dagoen kirola, bereziki udal, autonomi eta estatu mailako federazio baten babesean garatzen dena”.*
- 4.- **Goi mailako kirola:** *“bikaintasunera bideratutako kirol federatua, nazioarte mailako lehiaketa esparruan garatzen dena”.*
- 5.- **Kirol profesionala:** *“kirol ikuskizunean oinarrituta, onura ekonomikoa lortzeko helburuarekin egiten den kirola”*
- 6.- **Bertako kirola:** *“euskal kultur tradizioetik sortu den kirola”.*

Orientabide horietako bakoitza esparru komun bidez aztertuko da bere Kontzeptua, Oraingo Egoera, Egoera Ideala eta egoera idealera iristeko prozesua ezartzeko

- I.- Helburuak eta baloreak
- II.- Antolaketa eredu
- III.- Eredu ekonomikoa
- IV.- Azpiegiturak
- V.- Prestakuntza
- VI.- Genero berdintasuna
- VII.- Osasuna/Dopajea
- VIII.- Etika/Indarkeria
- IX.- Nazio nortasuna

HELBURUAK ETA BALOREAK

Euskadi Europa mailako gizarte aktibo eta osasungarrien lehen tokietan kokatzea, euskal hiritargo osoak, bere eguneroko jardunean, jarduera fisikoa praktikatzeko ohiturak har ditzan, gaixotasunak prebenitzeko, gozatzeko eta errehabilitaziorako, eta bizimodu osasungarria izateko faktore nagusi gisa aintzat har dezan.

- Euskal hiritargoari bizitza osoan jarduera fisiko osasungarriak eta jolasgarriak praktikatzeko erraztea, praktikarekin sentitzen den plazerra eta osasunari ematen ditzkion onurak kirola praktikatzeko arrazoi nagusiak izan daitezzen.
- Politika bereziak abian jartzea nerabezaroan kirol praktika bertan behera uztea saihesten laguntzeko, hirugarren adinean jarduera fisikoa areagotzeko eta emakumeen kirol praktika, zenbaki, intentsitate eta kalitatean, gizonen praktikaren maila berean jartzeko.
- Hedabideetan eta ikastetxeetan eredugarri izan daitezkeen euskal kirolariak agertzeko eta izateko, herritarren aurrean norbanako bakoitzaren interes, aukera eta beharrei ondo datorkien kirol praktikak dakartzan onurak eta balore positiboak azpimarratzeko.
 - ✓ Kirola osasuna, errespetua, konstantzia, nork bere burua hobetzeko ahalegina eta talde lana bezalako baloreak eragiteko eta hedatzeko tresna boteretsua da
- Kirolaren sektorea/kirolaren praktika bere alderdi guztietan bultzatzea (hezkuntza, turismoa, enpresa, industria, teknologia, ...), dagokien gobernu organoetan ordezkaritza eta indar handiagoa izan dezan.
- Bertako Kirolen presentzia soziala bermatzea, euskal herritarren interesa sustatuz, kirol praktikatik eratortzen diren onura pertsonal eta sozialak azpimarratuz eta belaunaldiz belaunaldi transmititzea eta denboran irautea ahalbidetuz.
- Helburuak lortzeko bidean esparru publiko eta pribatuaren arteko lankidetzaren sustatzea.

ANTOLAKETA EREDUA:

Euskal Kirol Eredu inklusibo eta iraunkorra eraikitzea, eskuduntzak ondo zehaztuko dituen eta herri administrazioen, erakunde pribatuen eta hirutarren jarduera fisikoaren eta kirol praktikarekin zerikusia duten promozioan, kudeaketan, komunikazioan, entrenamenduan eta prestakuntzan eragileen arteko koordinazioa bultzatuko duena.

- Eskola kirolaren oraingo antolaketa sistemari eustea, hau da, bakoitza bere kabuz antolatzea, 125 Dekretuak, 2008ko ekainaren 1ekoak ezartzen dituen helburuak betetzen direla egiaztatzen baldin bada.
- Heziketa fase osoan (Lanbide Heziketan eta Unibertsitatean ere) egunean jardueraren fisikoari edo kirol praktikari ordu betea ematea ahalbidetzea, heziketa fisikoari ematen zaizkion orduz gain (bi ordu derrigorrezko hezkuntzan, batxilergoan eta oinarrizko lanbide heziketan), jolastorduez gain, ikastetxeetara joan etorriak egiteko denboraz gain eta kirol praktikara dedikatutakoaz gain, hezkuntza eta kirol esparruan duten departamentuen, udalen eta ikastetxeen arteko lan bateratu eta koordinatuaren bidez.
- Udal edo Eskualdeko Kirol Egitasmoa bultzatzea, udalerrri bakoitzeko kirol klubek osatzen duten elkarte sarearen ahalegin eta baliabideak babesteko eta koordinatzeko, derrigorrezko hezkuntza amaitzen duten ikasleei kirol praktikarekin segitzen lagunduz.
- Jarduera fisikoa bultzatzeko planak (Mugimint / Aktibili) eta Goi Mailako Kirol praktika transbertsalak izan daitezela eta zuzenean Lehendakaritzatik lideratuak eta bultzatuak. Lehendakaritza arduratuko da gai honek hartzen dituen sailen esfortzuak, baliabideak eta erantzukizunak koordinatzeaz: Ogasuna, Sustapen Ekonomikoa, Kultura, Hezkuntza eta Osasuna.
- "Kirol Errezeta" izeneko udal esparruan behar bezala aplikatzen dela eta jarraipen egokia egiten zaiola bermatzea, Osasun Zerbitzu eta Kirol Zerbitzuetako profesionalen arteko koordinazioa bultzatuz.
- Gaur egun federazioek osatzen duten sarea berrantolatzea, eman zaizkien funtzio publikoek eta inbertitzen diren baliabide publikoek espero diren emaitzak ematen dituztela egiaztatzeko oinarrizko kategorien praktikan, kirolaren sustapenean, liga eta lehiaketan antolaketan eta Goi Mailako Kirolarekin zerikusia duten ekitaldietan Euskadiren ordezkartzan egiten den praktikan.

- ✓ Federazioen sare iraunkor eta eraginkorra, federazio kopurua, Euskadiko eta Herrialdeetako federazioen arteko harremana.
- Kirol Profesionalarekin eta Goi Mailako Kirolarekin lortu nahi diren onura sozialak argi eta garbi zehaztea, lortzen den publizitatetik harago, ematen den finantzaketa publikoa justifikatu beharko dutenak .
- ✓ Kirol profesionalak oinarrizko kirolarekiko konpromisoa hartzea, bereziki eskola kirolarekin .
- ✓ Botere Publikoek Kirol Profesionalarekiko egiten duten kudeaketa kirol honek gizartean eragiten duen benetako eraginaren arabera izan dadila .
- KIROLTZAINDIA erakundearen sorrera bultzatzea, bertako kirolekin zerikusia duten ikerkuntza sustatzeko erakunde gisa.
- Hezkuntza eta Kultura arloen arteko akordioak ezartzea, derrigorrezko hezkuntzako neska eta mutilen ikasgeletan Bertako Kirolek benetako presentzia izan dezaten, maila praktikoan eta gure kulturaren parte den zerbait ezagutzera emateko.
- Foru Aldundien, Udalen eta Bertako Joko eta Kirolen Federakundearen arteko lankidetzak bultzatzea, eskola umeei zuzendutako kirol eskaintza diseinatzeko helburuarekin, modalitate hauetako kirolari kopuruak areagotzea helburu.
- Boluntarioek egiten duten lana aintzat hartzea eta eman beharreko erantzun hori laguntza zuzen edo zeharkakoen bidez ematea. Halaber, ekitaldi mediatikoren baten bidez aitortza publikoa bultzatzea pertsona boluntarioen konpromisoa azpimarratzeko eta goraipatzeko.
- Kirol erakundearen antolaketan berdintasun printzipioetan oinarritutako politikak sustatzea, emakumeek kirol esparruetara sartzea ahalbidetzeko, kirol praktikan zein zuzendaritza eta teknikari postuetara.
- Bertako kirolak kudeatzen dituzten erakundeak indartzea, euskal hiritarren artean kirol hauen praktika bultzatzeko.

EREDU EKONOMIKOA

Kirola edo/eta jarduera fisikoa ekonomiaren motore edo ekonomia suspertzeko bultzatzaile izango den eredua, kohesiorako, osasuna hobetzeko (osasun kosteak aurrezteko) eta euskal nortasuna azpimarratzeko elementu izateaz gain.

- Kirol adierazpen ezberdinen eta turismoaren arteko harremanak planteatzen duen potentziala (bertako kirolak lehiaketak, ekitaldiak, eta abar) bultzatzea .
- Kirol profesionalen eta beren lana kirol esparruan garatzen duten erakundeen lan egoera eta egoera fiskala arautzea eta kontrolatzea, indarrean dagoen legeria betetzea exijituz eta intrusismoaren eta iruzur fiskalaren kontra eginez.
- Arlo honetan eskudun diren departamentuen artean partekatutako finantzaketa eredua ezartzea, zerbitzu profesionalak eta azpiegiturak mantentzea bermatuko duena, biztanleriaren zahartzeak osasun sisteman daukan eragin ekonomikoa arintzeko bitarteko gisa .
- Kirol estrategikoak eta bertoko kirolak diruz laguntzeko urte askotarako kontratu sistemak garatzea, Administrazio ezberdinen baliabideen egitura mailakatuaren bidez (toki erakundeak, herrialde erakundeak eta nazio erakundeak), kirol erakundeen auto-kudeaketa, jasangarritasuna eta bideragarritasuna sustatzeko. Sistema honen oinarrian egon daitezke laguntza zuzenak, instalazio eta materialaren lagapena, babesleak erakartzeko zerga pizgarriak eta kirol apustuetatik eratorritako diruaren parte bat itzultzeko formulak.
- Kirol federakundeek eta kirol klubek jasotzen duten babes ekonomikoa baldintzatzeari: langile organigraman langileak kirol prestakuntza izatea eta kontratupean lan egitea, emakumeen kirolarekin zerikusia duten kirol jarduerak eta ekitaldiak antolatzea eta erakundearen barruan bikaintasuna sustatzeko lana egitea.

AZPIEGITURAK

Kirolerako eta Jarduera Fisikorako Azpiegituren Plan Estrategikoa sustatzea, kirol praktikaren abiapuntutik zein osasunerako jardunbidea den aldetik, oraingo azpiegiturak hobetuz eta etorkizunean egingo diren azpiegiturako ondoko baldintza hauekin diseinatzea aurreikusiz.

- ✓ Administrazioaren maila ezberdinen arteko lankidetzaren bidez eta administrazio publikoaren eta erakunde pribatuaren arteko kolaborazioaren bidez egitea, arrazionalizazioa eta koordinazioa gogoan izanik, baliabide ekonomikoak eraginkortasunez kudeatzeko .
- ✓ Kirol esparruaz tradizionalki izan den kontzeptua zabaltzea, esparru horri nekazal gunea eta hirigunea erantsiz eta natur-guneen aprobetxamendua gogoan hartuz .
- ✓ Hiritargoaren beharrak eta herrialdeko edo/eta herrialde ezberdinetako aukerak eta tradizioak kontuan hartzea.
- ✓ Kudeaketa eta bideragarritasun plana aurreikustea iraunkortasun/jasangarritasun printzipioetan eta ingurua errespetatzeko irizpidean oinarrituta. Plan honetan esku hartuko dute udalek eta elkarte-sare pribatuak .
- ✓ Bertoko kirol praktikarako erabiltzen diren azpiegituren mantentze egokia bermatzea .
- ✓ Herritarrei instalazio ezberdinak erabiltzeko aukera ematea: Euskal Kirol Txartela.
- Gure herrietako gune publikoak humanizatzea jarduera fisikoaren praktika etengabea eta ohikoa izan dadin (umeentzako parkeak, bidegorriak), oinez ibili ahal izateko edo eta txirringaz eta patinetan ibiltzeko.
- Nazio mailan interesa izan dezaketen kirol modalitateak ikertzeko eta praktika sustatzeko kirol instalazioak mantentzea, hobetzea eta handitzea, bereziki bertoko kirolen eta estrategikoen kasuan.
- ✓ Faturako Hobetze Teknikorako Zentroa
- ✓ Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea
- ✓ Bertoko Kirolen Aberri Zentroari bultzada (KIROLTZANDIA).

PRESTAKUNTZA

Profesional onak prestatzea euskal hiritarren artean jarduera fisikoa eta kirol jarduera alderdi guztietatik sustatzeko: osasuna, errendimendua, jolasa eta hezkuntza .

- Beren lana Hezkuntza Sistemaren eta enplegurako lanbide Heziketa Sistemaren maila ezberdinetan garatzen duten Administrazio publikoek eta erakunde pribatuek eginiko ahaleginak eta interesak koordinatzea, ikastetxe espezializatu publiko-pribatuen euskal sare egokia bermatuz, sektore ezberdinetan dagoen eskariari erantzuteko.
- Lanbide Heziketako eta Unibertsitateko Kirol irakaskuntza ezberdinen curriculum eta ikasketak planifikatzea, Kirol Lanbideetara Sartzeari eta Kirol lanbideari buruzko legeak ezarriko dituen baldintzetara egokituz, eta berrikuntzarekin, ekintzailatzarekin, aukera berdintasunarekin, dopajearen kontrako borrokarekin, osasunaren sustapenarekin eta kirol etikarekin zerikusia duten edukiak indartuz .
- Goi mailako kirolariak Derrigorrezko hezkuntzaren ondorengo tituluak lortzeko eta lanbideetan sartzeko ikasketak egitea ahalbidetzea, beren kirol ibilbidea kaltetua izan gabe.
- Zahartze Aktiboarekin, Goi Mailako Kirolarekin, Bertako kirolekin eta Eskola kirolarekin zerikusia duten prestakuntza eta ikerkuntza sustatzea .
- Jarduera fisikoaren esparruan eta "kirolaren industria" deritzon esparruan sortu berri diren arloetan berrikuntza aplikatua eta ekintzailatza aktiboa bultzatzea, ezagutza berria eragiteko eta dagoena areagotzeko, espezializatzeko arlo berriak sortuz.
- Prestakuntza jarduera osagarriak ezartzea, Goi Mailako Kirol teknikarien etengabeko eguneratzea bermatuko dutenak Euskadi barruan zein Euskaditik kanpo.
- Euskadiko Kualifikazio eta Espezializazio Profesionalen Markoaren barruan espezializazio profesionalerako programak aurreikustea, oraingo euskal kirol ereduak dituen erronken aurrean kualifikazio berezia duten beharrak asetzeko (Goi Mailako kirola, "kirol errejeta" eta abar).

GENERO BERDINTASUNA

Kirol sistema osatzen duten erakundeetan eta esparruetan emakumeen presentzia, praktika eta parte hartze aktiboa bizitzaren etapa guztietan ahalbidetuko duten neurriak hartzea eta aplikatzea, erreferentziako Europar herrialdeetako estandarrak helburu hartuta .

- Kirol sistema integratzen duten rol eta egiteko ezberdinak emakumeek berengantzea ahalbidetzea eta bultzatzea: kirolaria, zuzendaria, arbitroa, entrenatzailea eta ikuslea.
- Emakumeen presentzia eta parte hartzea ahalbidetzeko ekitaldiak planifikatzea.
- Araudi ofizialak moldatzea, bertoko kirolen praktika emakumeen artean ere sustatzeko .
- Hedabide publikoetan emakumeen kirola agertzen dela bermatzea, lorpen handirik egon beharrik gabe.
- Komunikabideek emakumeek praktikatzen duten kirolari buruzko irizpideak sortzeko eta hizkuntza ez sexista sustatzeko izan dezaketen egitekoa bultzatzea.
- Diru-laguntza sistema ezartzea, zeinetan emakumeen presentzia kontuan hartu beharreko faktorea izango den dirulaguntza horiek emateko orduan.
- Emakumeen presentzia euskal selekzioek parte hartuko duten nazioarteko lehiaketetan izan dezaketen presentzia aintzat hartzea eta bultzatzea .
- Profesionalei zuzendutako prestakuntza jardueretan genero ikuspuntua kontuan hartzen bela bermatzea.

OSASUNA/DOPAJEA:

Dopajearen kontrako tolerantzia 0 politika ezartzea .

- Hiritarren artean zabaltzea dopatzeko substantziak erabiltzeak Kirol Kode Etikoa-ren ikuspuntutik iruzurra egitea suposatzen duelako ideia. Horrez gain, osasunerako ekar ditzakeen ondorio kaltegarriak iragartzea eta kontra egiteko garatzen diren jardueren berri ematea, substantzia horiek erabiltzen dituztenak zigortzen eta desprestigiatzen direla azpimarratuz.
- Dopajearen kontrako dauzkagun sistemak Dopajearen kontrako Mundu mailako Agentziak ezarritakora moldatzea, administrazio ezberdinen artean koordinatutako kontrolak ezarriz, emaitzak arin ezagutzeko prozedurekin eta zigorra jardueraren larritasunera egokituz eta erakundeen aldetik jarduera okerraren eta zigorraren aurrean koherentzia erakutsiz.
- Osasun azterketak egiteko Euskal Sarea bultzatzea, kirolariak babesteko kirol praktika aurretik, kirola egiten duten bitartean eta kirol praktika amaitutakoan.
- Osasun eta kirol profesionalen arteko koordinazioa bultzatzea, prestakuntza eta informazioa emateko neurriak edo/eta planak ezarriz.

ETIKA / INDARKERIA

Oinarrizko zoru etikoa ezartzea, kirol praktikaren baitan joko garbia sustatzeko, herritarren artean kirolaren gizarte balio onuragarriak islatzen dituzten jarrerak sustatuz eta ikusgarri eginez

- Etapa guztietan eta esparru guztietan desiragarriak diren jarduera ildoak edo/eta dekalogoak ezartzea .
- Kirol esparruan ematen diren gizalegearen kontrako jokaerak zigortzea eta deslegitimatzea, bereziki dopajearekin eta indarkeriarekin zerikusia dutenak, zein kirol esparrutan egin diren eta jarduerak nork burutzen dituen kontuan hartu gabe.
- Apustuen mundua arautzea, joko garbiaren ikuspuntutik kirol lehiaketaren funtzio-namendu zuzena arriskuan jartzeko erabili ez dadin.

NAZIO NORTASUNA

Gizarte sareen bidez, kirolak ,praktikak eta ikuskizunak, kohesiorako duen berezko potentziala eta euskal nortasunaren ardatz gisa duen indarra azpimarratzea .

- ✓ Euskadin oso hedatuta dago kirol praktika eta kalitatezko kirol gertakariak antolatzeke gaitasuna eta, horrez gain, nazioarte mailan oso ezagunak diren kirolari asko daude.
- ✓ Egoera onean gaude euskal kirola eta kirolariak, gure kulturaren beste ezaugarri eta elementuekin batera izan daitezela Euskadi nazioarte mailan ezagutzera emateko elementuak .
- Euskal kirolarien parte hartzea nazioarte mailako ekitaldietan egotea bermatzeko bideak arakatzea.
- Kirol esparruko eta bertoko kirol arloko kirolaririk aipagarrienak eta ezagunenak agerraraztea eta gizarte mailan duten presentzia areagotzea.
 - ✓ EITB eta BAT-en arteko Komunikazio Plana .
 - ✓ Komunikabideetan bertoko kirolen presentzia normalizatzea.
 - ✓ Bertoko Kirol Astea ospatzea.
 - ✓ Bertoko Kirolen erakusketa iraunkorrak edo ibiltariak.
 - ✓ Kirolarien praktika onak sustatzea.
- Jarduera egitasmoa zehaztea, edozein kirol modalitateko kirolari, klub eta selekzioek estatuko eta nazioarteko lehiaketetan , ofizialtasun osoz Euskadiren ordezkari gisa parte hartzerik izan dezaten.
 - ✓ Euskal selekzioak aintzat hartzeko lana, Euskadiko kirolariek nazioarteko lehiaketetan izan dezaten Euskadi ordezkatzeko aukera.
 - ✓ Legeak aukera ematen duen momentutik aurrera estatuko lehiaketa guztietan euskal kirolariek eta selekzioek parte hartzea.
 - ✓ Lehiaketa berriak sortzea, zeinetan euskal selekzioek ofizialtasun osoz parte hartuko baitute.
 - ✓ Euskadin nazioarte mailako lehiaketak egitea.
 - ✓ Nazioarte mailan nabarmendu ahal garen kirolak identifikatzea eta babestea, bereziki emakumeek praktikatzen badituzte.

- ✓ Administrazio eta enpresa esparruaren arteko lankidetzaz, Goi Mailako kirolarien gizarteratzea eta lan munduratzeko ahalbidetzea .
- ✓ Basque Country eta BasqueTeam markak sustatzea.
- ✓ Goi mailako kirolariak beren nazio nortasuna eta sentimendua adieraztera bultzatzea .
- ✓ Goi mailako kirolariei laguntzak jasotzeko erraztasunak ematea.
- Bertoko kirolak nazioarte mailako erakundeetan ofizialki aitortuak izan daitezela lan egitea, kirol maila handiagoko ekitaldietan eta medioetan presentzia handiagoa izan dezaten.
 - ✓ Nazioarte mailako Federazio eta erakundeetan bertako antolatzaileak, federazioak, entrenatzaileak eta epaileak egotea bultzatzea.
 - ✓ Arraunketa, pilota eta Bertako Kirola hobetzeko eta sustatzeko Plan Estrategikoak abian jartzea.
 - ✓ Gure kirolariak mundu mailan aurkeztea eta ezagutzera ematea, Euskadin egiten diren goi mailako kirol ekitaldiek medioetan duten zabalkundera baliatuz.
 - ✓ Bertako kirolaren inguruan egiten den ikerketa sustatzea.

1.- PRESENTACIÓN

Una de las características de las sociedades más avanzadas, es el tratamiento global que hacen del hecho deportivo considerándolo como una herramienta transversal al servicio de la mejora de la calidad de vida de la ciudadanía por los diferentes beneficios que se pueden obtener en relación a la salud, el empleo, la innovación y la cohesión social.

A inicios del año 2013, tras un periodo de contraste de los documentos base que se venían usando para establecer la posición de EAJ/PNV con respecto al hecho deportivo, desde el seno del Euskadi BuruBatzar se comienzan a dar los primeros pasos para actualizar estos planteamientos con la finalidad de establecer unas líneas estratégicas que sirvan para orientar y facilitar la labor de sus cargos políticos en el ejercicio de sus funciones.

2.- PARTICIPANTES

Este documento, REFLEXIONES SOBRE EL DEPORTE, es el fruto del trabajo desplegado a lo largo tres años por alderdikides que desarrollan su labor profesional en el mundo del deporte, aportando sus conocimientos, experiencias y visión de país con el objetivo de dotar a EAJ/PNV de unas líneas estratégicas consistentes y acordes a su historia y personalidad para poder responder adecuadamente a los retos que la sociedad le plantea en relación al hecho deportivo.

Profesores de universidad, formación profesional y educación secundaria y primaria, gestores de entidades deportivas diversas como empresas privadas, fundaciones, Institutos Municipales de Deporte, clubes deportivos, concejales de deportes, directores de deporte de diputación y EJ/GV, directores deportivos de clubes y federaciones, médicos deportivos, entrenadores, presidentes de federaciones vascas así como parlamentarios y cargos internos, siendo un claro ejemplo de la riqueza y variedad ámbitos donde está presente el deporte: político, económico, jurídico, académico, sanitario y deportivo.

3.- COMISIONES DEPORTIVAS

Al mismo tiempo que han sido un claro ejemplo de cómo se hacen las cosas en EAJ/PNV, ya que viniendo de diferentes ámbitos, teniendo diferentes intereses personales y objetivos profesionales, han sabido trabajar en equipo, en un proceso continuo de aportación y contraste de sus conocimientos y experiencias, con la finalidad de crear un documento lo más consistente posible desde el punto de vista social, académico y científico al mismo tiempo que funcional y fácil de entender para ser usado por personas que no provengan del mundo del deporte.

Para ello se ha trabajado mediante tres tipos de comisiones, que bien pudieran ser una única, con funciones y responsabilidades diferentes si bien el principio fundamental que se ha seguido es que cualquier aportación debiera ser contrastada con el resto de componentes hasta lograr el máximo consenso respecto a la misma.

1.- Comisión Deportiva Guía:

Grupo encargado de dinamizar el proceso de elaboración del documento mediante el establecimiento de las bases sobre las que se iba a desarrollar el trabajo de reflexión, presentando a personas del partido o cercanas que estuviesen dispuestas a trabajar en favor del mismo y consensuando el documento final así como presentándolo dentro del partido.

2.- Comisión Deportiva Temática:


Grupo compuesto por personas que desarrollan su labor profesional o tienen interés personal en una de las orientaciones de la práctica que se han determinado estudiar: Actividad Física, Deporte Escolar, Deporte Competición, Deporte de Alto Nivel, Deporte Profesional y Deporte Autóctono, sobre los que han realizado sus aportaciones y reflexiones siguiendo el esquema establecido por la Comisión Deportiva Guía.

3.- Comisión Deportiva General:

Compuesta por todas las personas que forman las Comisiones Restringidas y Temática, su función principal ha sido analizar, valorar, ajustar y consensuar los trabajos desarrollados en las diferentes Comisiones Temáticas.

4.- METODOLOGÍA

En el siguiente gráfico se presenta la metodología que se ha seguido, donde se puede ver como la Comisión Deportiva Guía establece las bases para el trabajo a desarrollar por las Temáticas, quienes presentan sus reflexiones y aportaciones a la General para que se contrasten y se desarrolle una primera versión de lo tratado para volver a trasladarlo a la Guía que procede a realizar la redacción final del mismo y poder presentarlo dentro del partido.



5.- ORIENTACIONES Y ÁMBITOS DE ANALISIS Y REFLEXIÓN

Una de las primeras tareas que tuvo la Comisión Deportiva Guía fue la de establecer un marco de trabajo consensuado que sirviese tanto para agrupar a las diferentes concepciones del hecho deportivo desde el punto de vista de la calle, el académico, el institucional y el legal, como para concretar las principales orientaciones deportivas sobre las que se va a trabajar y que se concretan en:

1.- **Actividad Física:** *“práctica físico-deportiva libre o no necesariamente organizada, exenta de competición o con competición puntual, orientada a la salud, el disfrute y el bienestar integral”*

2.- **Deporte Escolar:** *“deporte educativo que supone la creación de un entorno adecuado entre todas las y los agentes implicados para favorecer la socialización y la adquisición de hábitos deportivos saludables a partir de procesos de acción-reflexión”.*

3.- **Deporte Competición:** *“deporte orientado hacia el resultado que se desarrolla principalmente bajo el cobijo de una federación dentro del ámbito municipal, autonómico y estatal”*

4.- **Deporte Alto Nivel:** *“deporte federado orientado hacia la excelencia que se desarrolla en el ámbito de competiciones de carácter internacional”*

5.- **Deporte Profesional:** *“deporte que se realiza con el objetivo de obtener un beneficio económico en base al espectáculo deportivo”*

6.- **Deporte Autóctono:** *“deporte que nace de la tradición cultural vasca”*

Cada una de estas orientaciones a su vez se va a analizar a través de unos ámbitos comunes, en base a establecer su Concepto, Situación Actual, Estado Ideal y Proceso para llegar al mismo

I.- Objetivos y Valores-

II.- Modelo Organizativo

III.- Modelo Económico

IV.- Infraestructuras

V.- Formación

VI.- Igualdad de género

VII.- Salud / Dopaje

VIII.- Ética / Violencia

OBJETIVOS Y VALORES

Situar a Euskadi en los primeros puestos europeos como sociedad activa y saludable, favoreciendo que el 100% de la ciudadanía vasca adquiera y ponga en práctica en su día a día, hábitos de actividad física con orientación preventiva, recreativa y rehabilitadora, como factor principal para llevar un estilo de vida saludable.

- Facilitar a la ciudadanía vasca la práctica de actividades físicas saludables y recreativas a lo largo de toda su vida, donde el placer por la práctica misma y los beneficios para la salud que de ella se deriven sean las motivaciones principales.
- Establecer políticas que prevengan el abandono precoz en la adolescencia, aumenten los niveles de actividad física en la 3ª edad y sitúen la práctica deportiva de las mujeres en número, intensidad y calidad al nivel de los hombres.
- Promover la presencia mediática y en los centros educativos de deportistas vascos y vascas que sirvan de modelo para presentar a la ciudadanía los beneficios y valores positivos que se obtienen de una práctica deportiva adecuada a los intereses, posibilidades y necesidades de cada persona.
- ✓ El deporte es una potente herramienta de creación y difusión de valores como la salud, el respeto, la constancia, la superación, el trabajo en equipo...
- Impulsar el sector/hecho deportivo con sus diferentes vertientes (educativo, turístico, empresarial, industrial, tecnológico...) para que tenga una mayor representatividad y peso en los órganos de gobierno pertinente.
- Asegurar la presencia social de los Deportes Autóctonos fomentando el interés de la ciudadanía vasca mediante la puesta en valor de los beneficios personales y sociales que se derivan de su práctica y, con el objeto favorecer su transmisión generacional y perdurabilidad en el tiempo.
- Promover la colaboración público-privada en la consecución de los objetivos.

MODELO ORGANIZATIVO:

Construir un Modelo del Deporte Vasco inclusivo y sostenible que defina las competencias e impulse la coordinación entre las administraciones públicas, las entidades privadas y los agentes que intervienen en la promoción, gestión, comunicación, entrenamiento y formación relacionada con la práctica de la actividad física y deportiva de la ciudadanía.

- Mantener el actual sistema organizativo de deporte escolar por territorios que responde de manera particular en la que cada uno de ellos se organiza, siempre y cuando se aseguren las finalidades que establece el Decreto 125, del 1 de junio de 2008.
- Posibilitar la práctica de una hora diaria de actividad física y deportiva a lo largo de toda la etapa educativa (incluyendo la FP y la Universidad) sumando las dedicadas a la clase de educación física (dos horas en currículo de referencia en enseñanza obligatoria, bachillerato y formación profesional básica), las de los recreos, los desplazamientos al centro escolar y las dedicadas a la práctica deportiva mediante la acción conjunta y coordinada de los departamentos con competencia en materia de educación y deporte, los ayuntamientos y los centros educativos.
- Impulsar el Proyecto Deportivo Municipal o Comarcal que sirva para apoyar y coordinar los esfuerzos y recursos del tejido asociativo deportivo de cada localidad, representado principalmente en los clubes deportivos, facilitando la continuidad en la práctica deportiva de los y las escolares que finalizan su periodo de educación obligatoria
- Conseguir que tanto los planes de promoción de la actividad física (Mugiment / Aktibili) como de Alto Nivel Deportivo sean transversales, liderados e impulsados directamente desde Lehendakaritza quien se responsabilizará de coordinar los esfuerzos, recursos y responsabilidades entre los principales departamentos implicados en los mismos: hacienda, promoción económica, cultura, educación y salud.
- Asegurar la correcta aplicación y seguimiento de la denominada “Receta Deportiva” en el ámbito municipal impulsando la coordinación entre los y las profesionales de los Servicios de Salud y los Servicios Deportivos.

- Reorganizar el actual entramado federativo con el objeto de asegurar que las funciones públicas delegadas que tienen y los recursos públicos que se invierten obtienen los resultados esperados en cuanto a la práctica en las categorías de base, promoción deportiva, la organización de ligas y campeonatos y a la representación de Euskadi en eventos relacionados con el Alto Nivel Deportivo.
 - ✓ Entramado federativo sostenible y eficiente, número de federaciones, relación vascas y territoriales.
- Definir claramente los beneficios sociales que se quieren conseguir con el Deporte Profesional y de Alto Nivel Deportivo que justifiquen la financiación pública de los mismos más allá de la publicidad que se obtiene.
 - ✓ Compromiso del deporte profesional con el deporte de base, en especial con el deporte escolar.
 - ✓ Gestión de los poderes públicos con respecto al Deporte Profesional basada en los retornos sociales reales que produzca.
- Impulsar la creación de KIROLTZANDIA como organismo encargado de promover la investigación en todo lo relacionado con los deportes autóctonos.
- Establecer acuerdos entre las áreas de educación y cultura que permitan la presencia real y regular de los Deportes Autóctonos en las aulas de los y las niñas de educación obligatoria, a nivel práctico y como conocimiento de nuestro acervo cultural.
- Impulsar la colaboración entre las diputaciones, los ayuntamientos y las federaciones de Juegos y Deportes Autóctonos con el objetivo de diseñar una oferta deportiva dirigida a los y las escolares que sirva para aumentar el número de practicantes de este tipo de modalidades.
- Reconocer la labor realizada por los y las voluntarias mediante ayudas directas o indirectas, además del reconocimiento público a través de algún evento mediático con el fin de subrayar el compromiso de las personas voluntarias
- Promover políticas que desde la perspectiva de principios de igualdad en la cultura organizacional de las entidades deportivas sirvan para promover y facilitar el acceso de la mujer no sólo a la práctica sino a puestos directivos y técnicos.
- Fortalecer a las entidades que gestionan los deportes autóctonos como medio para impulsar su práctica entre la ciudadanía vasca.

MODELO ECONÓMICO

Asumir un modelo en el que el deporte y/o la actividad física sean considerados como motor económico y/o reactivador de la economía, además de como elemento cohesionador, mejorador de la salud (ahorro costes sanitarios) y seña de identidad vasca.

- Impulsar el potencial que presenta la relación entre las diferentes manifestaciones del deporte (autóctono, competiciones, eventos, etc.) y el turismo.
- Regularizar y controlar la capacitación así como la situación laboral y fiscal de los y las profesionales del deporte y de las entidades en las que desarrollan su labor, exigiendo el cumplimiento de la legalidad vigente y luchando contra el intrusismo y el fraude fiscal.
- Establecer un modelo de financiación compartido entre los departamentos responsables que asegure los servicios profesionales y la creación y mantenimiento de infraestructuras como medio para paliar el impacto económico que tiene el progresivo envejecimiento de la población en el sistema sanitario.
- Desarrollar un sistema contratos plurianuales de apoyo económico a los deportes estratégicos y autóctonos mediante una estructura escalonada de los recursos de las diferentes Administraciones (locales, territoriales y nacionales) que fomenten la autogestión, sostenibilidad y viabilidad de las entidades deportivas, basado en ayudas directas, cesión de instalaciones y material, incentivos fiscales interesantes para atraer patrocinios y mecenazgos y fórmulas para revertir parte del dinero generado por las apuestas deportivas.
- Condicionar el apoyo económico que reciben las federaciones y clubes deportivos a la presencia en su organigrama de personal con formación deportiva con contrato, al desarrollo de actividades y eventos relacionados con el deporte femenino y al fomento de la excelencia deportiva dentro de su entidad.

INFRAESTRUCTURAS

Promover un Plan Estratégico de Infraestructuras para el Deporte y la Actividad Física considerando el hecho tanto desde la práctica deportiva como desde la orientada a la salud, mejorando las actuales y planificando las futuras que se diseñen bajo las siguientes premisas.

- ✓ Que se desarrolle mediante la cooperación entre los diferentes estamentos de administración pública y de esta con las entidades privadas, racionalizando y coordinando con el fin de gestionar eficientemente los recursos económicos.
 - ✓ Que amplíe el concepto tradicional de espacio deportivo sumándole los espacios rural y urbano y el aprovechamiento de los entornos naturales.
 - ✓ Que tenga en cuenta tanto las necesidades de la ciudadanía como las oportunidades y tradición del país y/o de sus territorios.
 - ✓ Que conlleve un plan de gestión y viabilidad bajo criterios de sostenibilidad y respeto al entorno, en el que intervengan ayuntamientos y el tejido asociativo privado.
 - ✓ Que asegure el mantenimiento de las infraestructuras dedicadas a la práctica de los deportes autóctonos.
 - ✓ Que faciliten la posibilidad de uso de distintas instalaciones entre la ciudadanía: Euskal Kirol Txartela
- Humanizar los espacios comunes de nuestras localidades para que la práctica de la actividad física sea una constante, (parques infantiles, bidegorris etc), favoreciendo los desplazamientos a pie, bicicleta, patines, etc.
 - Mantener, mejorar y ampliar las instalaciones deportivas dedicadas a la investigación y práctica de modalidades de interés nacional, en especial la de los deportes autóctonos y estratégicos.
- ✓ Centro de Perfeccionamiento Técnico de Fadura
 - ✓ Facultad de Ciencias de la Actividad Física y el Deporte
 - ✓ Impulso al Centro Nacional para Deportes Autóctonos (KIROLTZANDIA).

FORMACIÓN

Formar los y las profesionales más competentes para promover la actividad física y deportiva en la ciudadanía vasca desde sus diferentes orientaciones: salud, rendimiento, recreación y educación.

- Coordinar los esfuerzos e intereses de las administraciones públicas y entidades privadas que desarrollan su labor en los diferentes niveles del Sistema Educativo, y del Sistema de Formación Profesional para el empleo, asegurando una red vasca de centros especializados público-privada adecuada que dé respuesta a la demanda en los diferentes sectores.
- Establecer el currículo y los planes de estudios de las diferentes enseñanzas deportivas, de formación profesional y enseñanzas universitarias, adaptándolos, entre otros, a los requerimientos que establece la futura Ley Sobre Acceso y Ejercicio de las Profesiones del Deporte en el País Vasco, y reforzando los contenidos relacionados con la innovación, el emprendizaje, la igualdad de oportunidades, la lucha contra el dopaje, la promoción de la salud y la ética deportiva.
- Favorecer la presencia de los y las deportistas de Alto Nivel Deportivo en los estudios conducentes a la obtención de titulaciones postobligatorias académicas y profesionales sin que su carrera deportiva se vea afectada.
- Potenciar la formación e investigación especialmente relacionada con el Envejecimiento Activo, el Alto Nivel Deportivo, los Deportes Autóctonos y el Deporte Escolar.
- Potenciar la innovación aplicada y el emprendimiento activo en nuevas áreas emergentes de la actividad física y de la denominada “industria del deporte”, con el objetivo de generar y aumentar el conocimiento creando áreas de especialización.
- Establecer acciones formativas complementarias que aseguren la continua actualización de los y las técnicos de Alto Nivel Deportivo tanto dentro como fuera de Euskadi.
- Incluir programas de especialización profesional dentro del Marco Vasco de Cualificaciones y Especializaciones Profesionales dirigidos a satisfacer las necesidades de especial cualificación de algunos retos del modelo deportivo vasco (alto nivel deportivo, “receta deportiva”, etc.

IGUALDAD DE GÉNERO

Establecer y aplicar medidas que favorezcan la presencia, la práctica y la participación activa de las mujeres en las entidades y ámbitos que forman el sistema deportivo a lo largo de todas las etapas de la vida teniendo como objetivo los estándares de los países Europeos de referencia.

- Favorecer la asunción por parte de las mujeres de los diferentes roles que integran el sistema deportivo: deportista directiva, árbitra, entrenadora, y espectadora.
- Planificar eventos orientados a favorecer la presencia y participación de las mujeres.
- Adaptar los reglamentos oficiales para impulsar la práctica de deportes autóctonos también dentro del colectivo femeninos.
- Asegurar una presencia del deporte femenino en los medios de comunicación públicos sin que esté sujeto a la consecución de grandes hitos.
- Impulsar el papel de los medios de comunicación en la creación de opinión sobre el deporte practicado por las mujeres y el uso de lenguaje no sexista.
- Establecer un sistema de ayudas y subvenciones donde la presencia de las mujeres sean un factor a tener en cuenta a la hora de concederlas.
- Reconocer e impulsar la presencia de las mujeres en las competiciones internacionales en las que participen las selecciones vascas.
- Asegurar la presencia real de la perspectiva de género en las acciones formativas dirigidas a profesionales.

SALUD / DOPAJE:

Establecer una política de tolerancia 0 contra el dopaje.

- Advertir a la ciudadanía de la trampa que supone para el Código Ético Deportivo el uso de sustancias dopantes, explicando además las consecuencias negativas que su mal uso pudiera tener para la salud, las acciones que se desarrollan para combatirlo, al mismo tiempo que se sanciona y desprestigia a quienes lo usan.
- Adaptar nuestros sistemas antidopaje a lo establecido por la Agencia Mundial Antidopaje, estableciendo controles coordinados entre diferentes administraciones, con celeridad en el conocimiento de los resultados y adecuando la sanción a la gravedad de la conducta, manteniendo coherencia institucional ante la misma.
- Impulsar una Red Vasca de Reconocimientos médicos que asegure la protección de los y las deportistas antes, durante y después de su práctica deportiva.
- Impulsar la coordinación entre los profesionales de la salud y del deporte, estableciendo medidas y/o planes de formación e información.

ETICA / VIOLENCIA

Establecer un suelo ético mínimo que sirva para fomentar el juego limpio en la práctica deportiva, promocionando y visualizando entre la ciudadanía las conductas que reflejan los valores sociales positivos del deporte.

- Establecer líneas de actuación y/o decálogos de comportamiento deseable en todas las etapas y en todos los ámbitos.
- Sancionar y deslegitimar públicamente las conductas incívicas que se dan en el deporte con especial atención a las relacionadas con el dopaje y la violencia independientemente del tipo que sea y de quien la lleve a cabo.
- Regular el mundo de apuesta para asegurar que el mismo no supone un peligro para el correcto funcionamiento de la competición deportiva desde el punto de vista del Juego Limpio.

IDENTIDAD NACIONAL

Considerar el potencial cohesionador que tiene el hecho deportivo, práctica y espectáculo, como agente vertebrador de la identidad vasca mediante el establecimiento de redes sociales.

- ✓ Euskadi es un país en el que la práctica deportiva y la capacidad de organización de eventos deportivos de calidad está extendida, además de contar con multitud de deportistas que cuentan con reconocimiento en el ámbito internacional.
- ✓ Estamos bien situados para que el deporte y los deportistas vascos sean junto a otros elementos distintivos de nuestra cultura un elemento para la proyección y el reconocimiento internacional de Euskadi.
- Explorar vías para que la participación de deportistas vascas y vascos esté garantizada en los eventos de ámbito internacional.
- Aumentar y asegurar la presencia en el día a día de la ciudadanía de los y las deportistas más destacadas y mediáticas del deporte y del deporte autóctono en particular.
- ✓ Plan de comunicación entre EITB y BAT.
- ✓ Normalización de la presencia de los deportes autóctonos en los medio de comunicación.
- ✓ Celebración del BertokoKirol Astea.
- ✓ Exposiciones permanentes o itinerantes de Deportes Autóctonos.
- ✓ Buenas prácticas de los y las deportistas.
- Establecer un plan de actuación para que los y las deportistas, clubes y selecciones vascas de cualquier modalidad deportiva puedan participar en campeonatos estatales e internacionales en representación de Euskadi de manera oficial.
- ✓ Trabajo por el reconocimiento de las selecciones vascas, de tal manera que los/as deportistas vascos/as representen a Euskadi en las competiciones internacionales.
- ✓ Presencia en todos los campeonatos estatales de deportistas y selección desde que la ley lo permita.

- ✓ Creación de nuevas competiciones en las que las selecciones vascas participen de forma oficial.
- ✓ Celebración de competiciones internacionales en Euskadi.
- ✓ Identificación y apoyo a los deportes en los que se pueda destacar a nivel internacional, especialmente si son practicados por mujeres.
- ✓ Colaboración entre administración y empresa facilitando la inserción sociolaboral del deportista de Alto Nivel.
- ✓ Impulso a las marcas Basque Country y BasqueTeam.
- ✓ Animar a los y las deportista de alto nivel deportivo a que manifiesten su pertenencia.
- ✓ Acceso a las ayudas de los y las deportista de alto nivel deportivo.
- Trabajar para lograr que nuestros deportes autóctonos sean reconocidos de manera oficial por los organismos internacionales para favorecer su presencia en los eventos de mayor nivel deportivo y mediático.
 - ✓ Impulso a la presencia de organizadores, federativos, entrenadores y jueces en las Federaciones y estamentos de ámbito internación.
 - ✓ Puesta en práctica de los Planes estratégicos para la mejora y promoción del remo, pelota y Deporte Autóctono.
 - ✓ Presentación al mundo de nuestros deportes aprovechando el tirón mediático que suponen los eventos deportivos de alto nivel que se desarrollan en Euskadi.
 - ✓ Promoción de la investigación realizada en el deporte autóctono.